



EUSKADIKO FUTBOL FEDERAKUNDEA
FEDERACION VASCA DE FUTBOL

2020/21 denboraldia

5ZK. DUN ZIRKULARRA

ERREGE KOPAN SAILKATZEKO ALDIA

Datorren denboraldian Errege kopan parte hartuko duen lurralde mailako euskal kluba argitzeko asmoz, eta Zuzendaritza Batzordea hitzarturiko txapelketa-oinarriari jarraiki, goian aipaturiko sailkapen fasea antolatu da, ondoko arauak oinarri harturik:

1. Parte-hartzaileak

Lurralde bakoitzeko Hirugarren mailara igo diren klubak:

- Urgatzi K.K. (Alava)
- C.D. Aurrera de Ondarroa (Bizkaia)
- C.D. Anaitasuna (Gipuzkoa)

2. Txapelketa-sistema

Errege kopan sailkatzeko aldia itzuli bakarreko Liga-sistemaren bitartez jokatu da.

3. Datak

Partidak ondoko egunetan jokatu dira: urriaren 3an, 7an eta 11an.

.../...



EUSKADIKO FUTBOL FEDERAKUNDEA
FEDERACION VASCA DE FUTBOL

- 2 -

4. Partiden Jardunaldiak eta Ordutegiak

Partiden jardunaldi eta ordutegi ofizialak honako gutunean zehaztu dira. Hala ere, partida antolatzen duen klubak larunbat arratsaldera aurreratu dezake, 15.30tik aurrera jokatzuz gero, aurkariari baimenik eskatu gabe. Hori alde batera utzirik, jardunaldia aldatu nahi duen klubak Euskadiko Federakundeari zazpi egun lehenago jakinarazi behar dio, betiere aurkariari baimena eskaturik. Aurkariak ere era berean adierazi behar du baimen hori. Lanegunetan egiten diren partidetan, klub antolatzaileek aurreikusitako datan ezarriko dute hasiera-ordua, eta ordu hori bera izango da 19:30etik 20:30era.

Partidaren ordutegia nahiz jokalekua Euskadiko Futbol Federakundeari jakinarazi behar zaizkio (Fax 94-4732221, webmaster@eff-fvf.eus), norgehiagoka jokatu baino zazpi egun lehenago. Aurreko guztia talde aurkariari ere jakinarazi behar zaio.

5. Jokalarien aldaketak

Partidek irauten duten bitartean, jokalarien bost ordezkapen egin ahal izango dira, gehienez behin-behineko bederatziko ordezkariaren artean.

6. Berdinketak

EFF-k indarrean duen Araudiaren III. Liburuko 101.4. Artikuluan ezarritakoaren arabera ebatziko dira:

Partida bakoitza bukatutakoan, emaitza zeinahi dela ere, bost jaurtiketa egingo dira penalti-gunetik, taldeetako batek irabazten duen arte. Emaitza hori kontuan hartuko da aldiaren sailkapen nagusian gerta daitezkeen berdinketak desegiteko azken aukera gisa.

.../...



EUSKADIKO FUTBOL FEDERAKUNDEA
FEDERACION VASCA DE FUTBOL

- 3 -

7. Epaileak

Partidak zuzentzeko izendatutako epaileak Hirugarren mailako epaileak izango dira eta hiru ordainagiriaren gastuak hiru klubuen kontura izango dira, kantitate berdinetan.

Klubek epailearen ordainagiriak ordaindu behar izango dituzte lehiaketako bere parte hartzea bukatu ondoren. Ordainketa Euskadiko Futbol Arbitroen Batzordera banku transferentziaren bitartez izango da. Lehiaketa bukatu ondoren Euskadiko Futbol Arbitroen Batzordeak kontu zenbakia eta ordaindu behar den kopuruaren dokumentua klubei bidaliko die.

8. Diziplina Batzordea

Fase Erregularra (Liga) amaitzean, indarrean dauden partaide guztien ohartarazpen zikloak automatikoki ezabatuak izango dira.


Ligako etenaldi zigor inposatuen inguruan –bai ohartarazpen metatzeagatik eta bai kanporatzeagatik – oraindik betetzeko daudenak, ez dira indargabetuko eta lgoera Fasean bete egin beharko dira.

Partidak bukatutakoan, epailearen aktak Euskadiko Futbol Federakundera bidali behar dira, Diziplina Batzordeak erabakia hartu eta jakinaraz dezan, hala behar izanez gero.

Aurrekoa jakinarazi zaie parte hartuko duten klubei, Lurralde Federakundeei eta Euskadiko Arbitroen Batzordeari, jakinaren gainean egon daitezen, eta dagozkion ondorioak ekar ditzan.

Bilbo, 2020ko irailaren 22a

KEPA ALLICA BILBAO
Secretario General



EUSKADIKO FUTBOL FEDERAKUNDEA
FEDERACION VASCA DE FUTBOL

FASE CLASIFICACIÓN COPA S.M. EL REY

ERREGE KOPAN SAILKATZEKO ALDIA

EGUTEGIA / CALENDARIO

URRIAREN 3AN / 3 DE OCTUBRE

C.D. Anaitasuna – Urgatzi K.K.

C.D. Aurrera de Ondarroa (ATSEDENA)
(DESCANSA)

URRIAREN 7AN / 7 DE OCTUBRE

Urgatzi K.K. – C.D. Aurrera de Ondarroa

C.D. Anaitasuna (ATSEDENA)
(DESCANSA)

URRIAREN 11AN / 11 DE OCTUBRE

C.D. Aurrera de Ondarroa – C.D. Anaitasuna

Urgatzi K.K. (ATSEDENA)
(DESCANSA)

-0-0-0-0-0-0-0-0-0-